



orain dela...

duela...delako...

dagoeneko...

...zelako...

...direlako...

...zirelako...

**Forma fosildu
eta forma
aldakor batzuk**



ORAIN DELA: ez da aldatzen.

- **Orain dela** bost urte izan ginen Eskozian.
 - *Orain **direla** bost urte izan ginen Eskozian.
 - *Orain **zela** bost urte izan ginen Eskozian



DUELA: ez da aldatzen.

- **Duela** bi aste agortu dira sarrerak.
- **Duela** zazpiehun urte gertatu zen.
 - ***Dituela** bi aste agortu dira sarrerak.
 - ***Zuela** zazpiehun urte gertatu zen.

DAGOENEKO: ez da aldatzen¹.

- Luze iritzita nago **dagoeneko**.
- Hila zegoen **ordurako/ jada(nik)**.
- Luze iritzita **nengoen ordurako/ jada(nik)**.
 - *Luze iritzita geunden **zegoeneko**.

¹ Orainaldiko adizkiekin erabiltzen da, oro har; dena dela, *Hiztegi Batuak* tradiziotik jaso du adibideren bat, zeinean lehenaldiko adizki bat eta *dagoeneko* adizlaguna perpaus berean elkarrekin agertzen diren. Ez ohikoak dira, hala ere, halakoak.

dagoeneko adlag.: luze iritzita ere **banago dagoeneko**; hori, urte haietan, **dagoeneko** aldarrikatua **zuten** Altubek eta.

DELAKO / DIRELAKO¹: orainaldian erabiltzen dira, normalki.

- Etxera iritsi nintzenean, *Biutti delako* hori atarian nuen, zain-zain.
- Horiek dira *self-fulfilling prophecies* **direlakoak**, hau da, esate edo egite hutsagatik betetzen diren profeziak.

Iñaki Heras, *Txanponaren bi aldeak*, Alberdania, 2003.

¹ Aipatzen den izen propio, erderatikako izen edo kidekoren baten ondoren.



Baina, lehenaldiko formak ere erabili dira tradizioan: **ZELAKO / ZIRELAKO.**

- Afalondoan (...) bildu ginen hirurak, *fakir zelako* batek bere lanean nolako gauzak egiten zituen ikusteko.

Agustin Anabitarte, *Apriako basamortuan*, 1961

- Aitortu beharrean naiz arrastaka eramanez nindutela Ingmar Bergman-en *El séptimo sello* ikustera (...). "Zazpigarren..." **zirelako** film gehiegi ikusia nintzen, batetik, eta ez zidaten oroitzapen atseginik utzi.

Koldo Mitxelena, "Zinema", *EGAN*, 1961

Hona beste adibide bat:

- *Conquistadores* **zirelako** haiek agertu aurretik, "indiarrak" hirurogeita hamar milioi biztanle ziren; hiru milioi eta erdi baino ez ziren geratzen ehun eta berrogeita hamar urte geroago.

Jacques Adda, *Ekonomiaren globalizazioa*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2004.
Euskaratzailea: Koro Navarro.